

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Irudi lau eta gorputz geometrikoen elementu bereizgarriak identifikatu, multzokatu eta informazio berria eskuratu, elementu horien arteko erlazioak baliatuz.	<p>1.1. Irudi lauak, gorputz geometrikoak eta haien elementuak identifikatu, sailkatu eta izendatu ditu.</p> <p>1.2. Angeluen balioak kalkulatu ditu, haien arteko arteko erlazioak baliatuz.</p> <p>1.3. Hiruki eta lauki motak ezagutzen ditu eta haien berezitasunak bereizten ditu.</p>
2. Geometria lauaren ezaugarriak eta propietateak (formari buruzkoak zein metrikoak) kontuan hartuz eta eskuz zein euskarri digitalak erabiliz, irudi geometrikoak planoan adierazi, horretako behar diren eraldaketak eginez.	<p>2.1. Plano kartesiarretan puntuak identifikatzen eta deskribatzen ditu</p> <p>2.2. Marrazketa laueko elementu nagusiak (zuzena, puntua, zuzenkia, zuzenerdia...) ezagutzen ditu.</p>
3. Proposatutako banaketak egiteko eremu lauen perimetroa eta azalera neurtu, irudiak deskonposatuz zein formulak aplikatuz.	<p>3.1. Unitate aldaketen kalkuluak kontrolatzen ditu, azalera unitateen arteko erlazioak ulertzen ditu</p> <p>3.2. Irudi lau desberdinen azalera eta perimetroen kalkuluak zuzen burutu ditu (formula erabiliz edo irudia deskonposatuz), eta emaitzaren unitatea egoki adierazi du.</p> <p>3.3. Irudi lauen azalera eta perimetroei dagozkien problema desberdinak ondo ebatzi ditu, zeregina eta datuak identifikatu ditu, ebazpena planifikatu du eta eragiketa egokiak aukeratu ditu eta emaitza zuzen adierazi du (unitateak, emaitza biribildu du...).</p> <p>3.4. Irudi konbinatuen azalera eta perimetroen ariketak ongi ebatzi ditu, ariketa ongi planifikatuz eta emaitzak unitate egokian adieraziz</p> <p>3.5. Zirkuluaren azalera eta perimetroa ondo ezagutzen ditu. Pi zenbakia ondo ezagutzen du eta bere ezaugarriak kontuan izanda egiten ditu eragiketak.</p>
4. Ekuazioen kontzeptua ulertu. Oreka egoeraren esanahia, eraldaketen baliokidetasuna, ebazteko jarraibideak barneratu era sinboliko edota aljebraikoan.	<p>4.1. Informazio aljebraikoaren adierazpen moldeak (sinbolikoa zein aljebraikoa) identifikatu ditu eta haien arteko eraldaketak egin ditu.</p> <p>4.2. Lehenengo mailako ekuazioak ebatzi ditu.</p>